

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Beharko ditugun baliabideak honako hauek izango dira, bi multzotan banatuta; alde batetik fisikoak eta bestetik intelektualak.

Baliabide fisikoei dagokienez, nahitaezkoak izango dugu bulego, denda eta biltegia moduan erabiliko dugun lokala. Izan ere, gure enpresak ez ditu lokalizatzaileak ekoitziko; hizkuntza bat gehitu (euskara) eta eremu geografiko berrietan (hasieran Espainian) zabaldu baizik. Ondorioz, makineria eta antzeko baliabideen beharrik ez dugu izango. Bestalde, lokalaz gain, bulegoan zenbait material beharko dugu; besteak beste, ordenagailuak, mahaiak, aulkiak, biltegiko apalak, e.a.

Baliabide intelektualei dagokienean, berriz, taldea osatzen dugun laurok arituko gara lanean soilik. Hau, ekoizlearen aholkuak jarraituz beti ere, izan ere, guk baina esperientzia zabalagoa dute arlo honetan. Gainera, gutako bakoitzak zehaztua du dagoeneko egin beharrekoa, bakoitzak bere trebetasunak baititu, eta hauek elkaturik, enpresa aurrera atera ahal izatea espero dugu.

Hau guztiaz gain, kreditua eskatzea erabaki dugu, izan ere sozietate mugatua sortzeko dirua lor dezakegu, baina beharrezkoa den kapital osoa elkartu ahal izateko laguntza ekonomiko bat beharko dugu.